Semenario handitik 1957 ko maiatzaren 10 ean

Jauna.

Atzo ikhusi dut jaun superiora. Erran daut hitzemana zautzula izkiriatzea, noiz jin behar zinen erraiteko. Gero galdegin daut hea ez nuenetz hori egiten ahal. Beraz obeditzen dut eta erraiten dautzut arras kontent gintazkela jiten ahal bazine helduden asteartean goizeko bederatzi orenetako, usaïan bezala, eskuararen aberastasunak guri erakusteko.

Orai artino, zu balin bazira arizan guziz lanean, iduritzen zaut orai ariko girela gu ere gehichago etsaminetako lanak jin aitzin eta sendituko dugula "lilien usaina", Pierre Etchepare-en liburuan. Senditukodit ugu guziz eskuar garbi eta ederraren segeretuak. Jadanik miresturak baginen Etchepare-en eskuaraz, orai esperantcha dut frantseserat

itzultzeakari, horren segeretuak klartzen hasiko direla.

Galdegin daukuzu zombeit aldiz zer nahi ginuen egitea. Hasi daukuzun lana arras ona hatchemaiten dugu, bainan arras kontent ginintazke, noizbeit pasatzean aiphatu bezela, mintzatzen ahal bazine eskualdunaren sinhesteaz. Hor iduritzen dauku laket litakela zerbeiten aditzea eta gero, zure erraner burbilduz, guk ere bil ginetzazke esperientzia zombeit, ikhusi gauza batzu.

Beraz astearteean idurikatzen zaitugu eta uzten zituz errespeturekin erranez milesker guretako egin duzunaz eta eginen duzunaz.

Laurent Pochelu